

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

**ZIURTATZEN DOT:**

2011ko martxoaren 9an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

**4.- AZOKAKO ZOLADUREA ALDATZEKO KONTRATUA BEHIN-BEHINEKOZ ESLEITZEA.**

**Xedea**

Azokako zoladurea aldatzeko kontratua behin-behinekoz esleitzea.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: Kontratu honen xedea Udal Azokako inguruaren zoladurea aldatzea da. Bide batez, jagokon iragazgaizpena be egingo da.

Bigarrena: Prozedura negoziatua egin da, publizidade barik. Holan, hiru gonbidapen egin dira. Halanda be, enpresa batek, azkenean, ez dau eskaintzarik aurkeztu. Honeek izan dira enpresen eskaintza ekonomikoak:

- LUIS GRAÑA Ez dau aurkeztu eskaintzarik
- URRE, S.A. 138.983,00 €
- CONSTRUCCIONES EDER, S.A. 128.714,06 €

**Argudioak**

Bakarra: Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren eta kalifiketako sistema kontuan hartuta, CONSTRUCCIONES EDER, S.A. enpreseak lortu dau puntu gehien. Hauxe da puntu kopuruaren taulea:

Enpresea	Eskaintza ekonomikoa (0-70)	Metodologia (0-30)	Guztira (0-100)
URRE, S.A.	64,83	20	<b>84,83</b>
EDER, S.A.	70	20	<b>90</b>

**Erabagia**

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: Udal Azokako inguruaren zoladurea aldatzeko obrea CONSTRUCCIONES EDER, S.A. enpreseari esleitzea behin-behinekoz,

128.714,06 euroan (BEZa kanpo). BEZari jagokon zenbatekoa 23.168,53 €-koa da. Guztira: 151.882,59 €. Beherapena: % 28,4022.

BIGARRENA: Behin-behineko esleipena Bermeoko Udaleko web orriko kontratugilearen profilean argitaratzea.

HIRUGARRENA: Enpresa esleipendunari jakinarazotea behin betiko esleipena egin ahal izateko jarraian adierazoten diren jarduketak egin beharko dauzala:

- Dokumentazio orokorraren artean, jatorrizkoa ez dan agiriren bat kautotu edo egiaztatu barik aurkeztu bada, kautotuta edo egiaztatuta aurkeztu.
- Behin betiko bermea (6.435,70 €) jarri.

Horretarako, hamabost (15) laneguneko epea izango dau, erabagiaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2011ko martxoaren 14an.

ONETSIA  
ALKATEA